



## GURE ALTXORRA EZAGUTZEKO MODU BERRIA

Tolosa Gourmet-en baitan ekimen berria abiarazi dute; turistek babarrunaren inguruko ibilbidea egiteko aukera dute >2

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Osteguna  
2008-07-17

VIURTEA 1.488.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Aurtengo berrikuntza konpartsa herrikoia izan da. Irudian, konpartsaok kalejiran, atzo arratsaldean. IMANOL GARCIA

### Aranburuk eta Intzak Norteko Trenbidearen ale berria kaleratu dute

**GIZARTEA** Otzaurte eta Igartza bitarteko zatia hartzen du lanak 4

### Hirugarren urteurrena ospatuko dute etzi, gaztetxean

**LEITZA** Hainbat ekitaldi antolatatu dituzte, egun osoan zehar 7

### Gorengo mailan kokatu dute Uzturpe Udal Haur Eskola, EAEn

**IBARRA** Hazitegi ikerketaren arabera, «lortutako emaitzak, beste eskolenak baino aberatsagoak dira» 6

## EDERKI OSPATU DUTE KARMEN EGUNA

**ALEGIA** Herriko dantzari gaztetxoek saioa eta konpartsa herrikoia izan ziren atzo aipagarrienak; gaur, Bibalabirjen bandera izango da 5

## Usabiaga bikain Munduko Pista Txapelketan 3

Tolosako Musika Bandaren kontzertu berezia, bihar 3

## 12. GARAGARDO AZOKA Uztailaren 17tik 20ra



Ordutegia: 18:00etatik 1:00etara

VILLABONA

Tolosa Gourmet-en baitan ekimen berri bat jarri dute martxan; uda honetan, bisitariek babarrunaren inguruko ibilbide bat egiteko aukera izango dute, honen inguruan informatuz.

# Babarrunaren bidea jarraituz

## ESTI EZEIZA

**A**ski ezaguna da Euskal Herri osoan Tolosako Babarruna, eta lehen, txi-roen jakia zena, orain luxuzko plater bilakatu da. Maiatza aldera ereiten den haziak urrian ematen du fruitua. Hori dela eta, neguarekin eta hotzarekin lotzen da jaki hau. Baina, Tolosako egoskari honek duen arrakasta ikusita, udarako ibilbide berezi bat antolatuta dute.

Txangoa larunbat goizetan egiteko prestatua dago. Honela, Tolosako Santa Maria parrokiaren ondoan dagoen babarrun soroan hasiko genuke goiza. Bertan, taula batzuk ipiniko dituzte, non lekalearen inguruko informazioa ageriko den. Hauek irakurruta, Tolosako babarrunaren berezitasunak zeintzuk diren jakin ahal izango dute bisitariak. Inguru hori ikuskatu ondoren, Zerkausiko merkatuan izango luke jarraipena bisitak. Erreka bazter honetara etortzen dira larunbatero inguruko herrietako baserriarrak, beraien produktuak saltzera. Hala, turistik, besteak beste, labeldun babarrunak erosi ahal izango dituzte postu hauetan. Txangoa borobiltzeko, eskualdeko jatetxe batera joan gaitezke, eta Tolosako babarrunak dastatu. Izan ere, Tolosaldeko jantoki askotan, beraien menuan, urte guztian zehar eskaintzen dituzte babarrunak.

## Tolosako babarrunaren ezaugarriak

Tolosako barietatea (Aiena) Mintegietako Hazien eta Landareen Institutu Nazionalen erregistroa dago. Tamaina zehatzik ez du (landare altua), eta arto, sare, makila edo hagatxo bidez lagunduta egiten da ekoizpena. Aire librean ereiten da eta ordutik aurrera 120-

170 eguneko aldia behar du bildu arte. Oboide itxurako alea da, eta kolorea, berriz, more ilunetik ia beltzera bitartekoa. Neurriari dagokionean, zentimetro bat eta 1,5 arteko luzera du.

Landare jatorriko elikagaien artean babarruna da proteinetan aberatsenetakoa. Egoskariak aberatsak dira lisanan, baina metionina gutxi dute, zerealekin, ordea, alderantziz gertatzen da, eta elkarrekin balio biologiko nabarmena duten proteinak osatzen dituzte.

## Nola egiten da babarruna?

Tolosako babarruna ohiko eran egiten da eta ingurumena errespetatuz, inolaz behartu gabe eta eskulan ugari erabiliz. Maiatzaren erdialdetik urriaren erdialdera arteko aldi horretan ekoizten da. Hasteko lurra jirutzen da goldea erabiliz, eta aldi berean simaurra nahasten da. Lurra 20 zentimetro inguruko sakontasunean jirutzen da, eta urtero goldearen sakontasuna aldatzea komeni da, geruza gogorak sortzea eragozteko. Lan hori urritik abendura bitarte egiten da, eta neguko laboreren batizenez gero soroan, lan horiek udaberrian egingo dira.

Maiatzaren erdialdera ereiten da babarruna, izotzen arriskua igaro ondoren. Ereiteko aldi hori zertxobait atzera daiteke baina ekainaren erdialderako amaizuta behar du gero bere garaian bildu ahal izateko. Ereiteko metodorik erabilienak eskuak eta doitasunezko ereiteko makina dira. Lan horiek ia beti eskuak egiten dira eta bereziki landarea txikia den bitartean. Tutore moduan artoa da gehiena erabiltzen den sistema eta ohikoena da inguruan. Baina sareta eta hagatxoak ere erabili daitezke.

Erabat eskuak egiten da eta aldi-zaka biltzen da, lekak heltzen diren



Babarrunaren ibilbidea Santa Mari elizaren ondoko baratzen hasiko litzateke, eta Zerkausian jarraitu. E. EZEIZA

heinean, eta barruan dituzten per-lak behar bezala helduta daudenean. Arreta handiz egiten den bilketa-sistema hori da Tolosako Babarrunaren goi mailako kalitatea bermatzen duena. Bildu ondoren, lekak beti egin izan den moduan gure baserrietako ganbaretan zabaltzen dira, hariak eta aleak %14ko hezetasuna lortu arte (euriak horiek ez bustitzeko moduko lekua izango da beti). Lan horiek Elkar-teko langileek egiten dituzte, Tolosan duen pabiloian. Lan honen guztian ondoriorz lortzen da benetako Tolosako Babarruna. Ontzi

unitarioetan merkaturatzen da, jalarria eta kalitatea ziurtatzeko behar bezala etiketatuta.

## Sukaldatzeko moduak

Janari-gozo honen prestaketak baditu bere arauak. Duen zaporea, itxura eta ezaugarriak aldatzerik nahi ez bada, ez dira beratzen jarri behar, eta presiozko eltzeta alde batera uztea komeni da. Azken gomendioa da sakramentuekin ez egitea. Tolosako babarruna kilo batek hiru litro ur inguru behar ditu egosteko. Baita, bost koilarakada oliba-olio birjin eta gatza.

Zortzi lagunentzako babarrunak sukaldatzeko, ondorengo pausok jarraitu behar dira. Hasteko, kilo bat babarrun eltzetan jarri hiru litro ur hotzekin, olio botata eta su biziari jarri, irakiten hasi arte. Ondoren, sua jaitsi eta motel-motel irakiten eduki 3 ordu inguruan (denboraldia aurrera doan heinean, denbora gehiago beharko da babarrunak egiteko). Ura behar badute, beti ur hotza botako zaie. Eginak daudela ikusitakoan, gatza bota, minutu batez irakiten utzi eta sua itzaliko dugu, bere horretan utzi behar dira saldaloditu dadin.

## H Hilberria

### M<sup>a</sup> PILAR ZURUTUZA AIERBE

(Gregorio Albisuren alarguna)

Atzo hil zen, 93 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golanbego-

Arima zuzendaria: Juan M<sup>o</sup> Olaetxea: seme-alabak: Zeles (†) eta Inaxi Imaz, Juanito eta Rosario Elizalde, Joxe eta M<sup>o</sup> Karmen Imaz, Agustín (urrin), Iñaki eta Ana Sagastume, Mikel eta Loli Urkia, Julian eta M<sup>o</sup> Jose Eskisabel, Pakito (†), Arantxa eta Jesus M<sup>o</sup> Sukia; senideak: Mikaela eta Julian (†), Jexuxa eta Iñaki, Joxepa (†) eta Migel (†); ezkon senideak, bilobak, birlobak, ilobak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde etoizt bat eskatzen dizue eta arren etor zaitzela GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN GREGORIO parroki elizan gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Teletxe-Berri baserria.  
Oharra: Gorpua Beasaingo Goierri Beilatokian egongo da.



ATAUN  
2008ko uztailearen 17a

## U Urteurrena

### IV. urteurrena AITOR ZATON RODRIGUEZ

Gure bihotzean  
bizi zara, betiko.

SODOMOGOANO

Etxeok



LAZKAO  
2008ko  
uztailearen 17a

# Erritmo dantzagarriak biharko Gau Giron Musika Bandaren eskutik

**Musika** » Luis Mari Gartzia zuzenduta, Lopez Mendizabal pasealekuan eskainiko dute kontzertua, 22:30etik aurrera.

## ERREDAKZIOA

Lolas Club rock talde gipuzkoarrrak Fronton kafetegiaren terrazan pasa den astean eman zuen zuzeneko emanaldiaren ostean Tolosako Musika Bandaren txanda izango da bihar Gau Giro egitarauaren baitan. Tolosako musikariak kontzertu berezia eskainiko dute biharkoan, 22:30etik aurrera, eta leku berri batean gainera, hau da, Lopez Mendizabal pasealekuan.

Azken urteetako udako kontzertuen harira, dantzarako musika prestatu dute biharko emanaldiarako Tolosako Musika Bandakoek Luis Mari Gartzia Artetxeren zuzendaritzapean. Hala, Lopez Mendizabal pasealekua dantzarako bilakatu da, eta bertako tabernen terrazetan, lasai lasai zerbait hartuz daudenekin doinu bereziaz gozatu ahaliko dute, eta Musika Bandakoek dioten bezala, «bere barruan gordeta duten dantzaria kanporatzeko aukera bikaina izango dute».



Musikaria astean, Arimaz Soka Orkestrak eta Tolosako Musika Bandak kontzertua eskaini zuten Zerkausion. E. EZBZA

## Dantzarako gonbita

Frank Sinatra, Duo Dinamico, Abba, Tom Jones eta mundu mailan oso ezagunak diren beste hainbat artisten doinuak entzuteko eta dantatzeko parada izango dute bertaritzen direnek. Musika estiloiari dagokionez, Rock&Rolla,

mexikarrak, rumba, cha-cha-cha, fandango eta arin arina... izango dira. Hain zuzen ere, ondorengo izango da egitaraua: *Llora Jalisco, Fiesta (Cumbanchero, Tico-tico...), The second waltz, Casablanca, Tequila, Frenesi, Rockaround the clock, Amor, Bailando el twist, Abba*

*Gold, My way, Tom Jones in concert, Dantzaldia, Getary eta Ia zarrak!*

Beraz, osagai hauek guztiak aintzat hartuta, ondorengo gonbita luzatzen dute Bandakoek: «Mugibizkarrezurra eta txonkatila horiek!».

# Bosgarren postua lortu du Ana Usabiagak puntuazioan

**Txirindularitza** » Lurmutur Hirian jokatzeko ari diren Munduko Txapelketan ari da Tolosako CFko kidea.

## ERREDAKZIOA

Tolosako CFko Ana Usabiaga txirindulariak larunbatean Hego Afrikan, Lurmutur Hirian, junior mailako Pistako Munduko Txapelketan, Scratch proban lortutako emaitza hobetu zuen herenegun. Izan ere, puntuazioan 5. egin zuen.

Ordiziarra emaitza oso onak ari da lortzen beraz Munduko Txapelketan. Herenegun proba dagokionez, Megan Dunn australiarrak irabazi zuen; Usabiagak, bere aldetik, 3 sprintetan puntuak

batzea lortu zuen. Hala, bigarren postua lortzea ia ezinezkoa zenez, 3. postutik hasi eta 10.era zeuden jokoan 8 txirindulariren artean, eta Tolosa CFkoak 5.ean amaitu zuen.

Lasterketa amaitu bezain laster, «oso ondo» sentitzen zela adierazi zuen Usabiagak. «Lasterketaren erdian behera egin dut pixka bat, baina segituan errekupeperatu naiz». Halaber, pena sentitzen zuela ere esan zuen, azken sprintean ez baitzen lehiatu eroriko bakoengatik, eta laugarren postutik puntu batera baino ez da geratu. «Dena den, Txapelketa hasi aurretik bosgarren postua sinatu egingo nuke». Bestalde, txapelketa amaitu eta etxera bueltatzean, iraillean Polonian izango den Europako txapelketarako ondo prestatzen hasi-ko dela aipatu du.



Ana Usabiagak domina ugari lortu berri ditu Espainiako Txapelketan. HITZA

## Pistatik errepidera

Junior mailako Pistako Munduko Txapelketaren baitan, Belleville belodromoko pistan izandako arrakastaren ostean, Ana Usabiaga errepidean lehiatzen pasako da. Hain zuzen ere, datorren igandean, hilaren 20an,

10:00etatik aurrera izango du hurrengo proba. Lurmutur Hirian bertan izango da, eta 13,6 kilometro zirkuituari 6 bira eman beharko dizkio, 81,6 kilometro guztira. Orain arte lortu dituen bezain emaitza onak lortzea espero dute bere taldekideek.

## Laburrak

### Gazteei zuzenduriko arraun ikastaroak

**KIROLA** » Tolosaldeko Arraun Kluba arraun ikastaroa antolatuko du 1995-1998 urteetan jaiotako neska-mutilentzat. Izena eman nahi dutenek Zerkausionen behetako so-lairura jo beharko dute hilaren 21 edota 22an, 18:00etatik 20:00etara bitarte. Hamabost eguneko iraupena izango duten bi ikastaro izango dira abuztuaren zehar, goizetan, 10:00etatik 11:30erako ordutegian.

### 2009ko egutegirako argazki lehiaketa abian

**GIZARTEA** » Tolargik eta Tolosaldeko 2009 urteko Tolosako egutegia osatzeko argazki lehiaketa jarri dute abian *Tolosa eta bere jaiak* gaiarekin. Argazki lehiaketa parte hartu nahi dutenek nahi adina argazki aurkeztu ahal izango dituzte Tolargiren (Rondilla kalea, 34 behe) nahiz Tolosagaren (Aros-tegieta kalea, 18 behe) bulegoetan. Irailaren 29a izango da argazki aurkezteko azken eguna. Irabazleak argi edo gas fakturaren zenbatekoa jasoko du, gehienez 600 euro, eta 300 euroko beste bi sari ere izango dira.

### Piraguismo ikastaroa antolatu du Kaxkardik

**AISIA** » Piraguismo ikastaroak antolatu ditu Kaxkardi Kultur Elkarteak Txaraman. Hauek egun bateko irteerak edo aste osoko ikastaroak izan daitezke. Animatzen direnek 636 63 86 35 edota 677 48 89 10 telefono zenbakietara hots egin beharko dute. 8 urtetik gorakoei zuzendua dago, eta iraila bitarte eskainiko dute.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Alde Zaharrean etxebizitza salgai. Mereke. Obra egin behar da. Interesatuak deitu 657 23 00 11 edo 634 91 94 82 telefono zenbakietara.

@ **Zurea da hitza.** Eskualdeari buruzko berriak sartzeko aukera duzu gure webgunean. Horretarako, *Zurea da hitza* atalera jo besterik ez duzu egin behar. Bertan iradokizunak, kexak, eskerrak... sartu ahaliko dituzu, eta argazkiak ere bai. Horretaz gain, datuak sartzeari ere komenigarria da harremanetan jarri behar izanez gero. *Zurea da hitza* atalerako webguneari gain, telefonoa (943 65 56 95) erabili dezakezu, eta e-maila (tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) ere bai. Beraz, bide ugari dituzu zure inguruko berriak ezagutarazteko:

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Aranburuk eta Intzak kaleratu dute Norteko Trenbidearen bigarren liburua

**Historia** » Otzaurte eta Igartza bitarteko zatia hartzen du; gaur egingo dute aurkezpena Zegamako Kultur Etxean.

**IMANOL GARCIA**

Pello Joxe Aranburu alkizarrak eta Luis Mari Intza tolosarrak Norteko Trenbideari buruz egin duten lanaren bigarren liburua atera berri dute. Aurrekoan Beasain eta Irun arteko zatia aztertzen bazuten, oraingoan Beasain, zehazki Igaratazatik, eta Otzaurte bitarteko zatia jaso dute. Bigarren liburua honen aurkezpena gaur bertan egingo dute egileek Zegamako Kultur Etxean, 20:00etan.

Norteko Trenbidearen eraikuntzak Gipuzkoan izan zituen ondorioak aztertzen dituzte bi liburuekin. Lehenengoaren aurkezpena Tolosan egin zuten. Beste datu batzuen bila zebilela topo egin zuen gaiarekin Aranburuk eta Norteko Trenbideari buruzko lanik argitaratu gabe zegoela jakin ostean, be-



Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Intza, liburua eskuan dutela. MIKEL ALBISU/GOIERRITARRA

rak ekin zion. Luis Mari Intzak argazkiekin eta planoekin lagundu du.

Igartza eta Otzaurte bitarteko zatian, bi egileei deigarriena egin

zaiena Zegamako tunela izan da. «Faraoiaren obra izan zen», azaldu du Aranburuk. Intzak gaineratu duenez, «zazpi urte aritu ziren lan hori egiten eta heriotza asko izan

ziren, bai istripuengandik bai gaixotasunengatik». Liburuaren ale bat izan nahi duenak gaur du horretarako aukera Zegaman egingo duten aurkezpenean.

## Transernio Txapelketaren hirugarren asteburua, bihar eta igandean

**ERREDAKZIOA**

Adunak egiten ari diren Transernio Pilota Txapelketaren hirugarren asteburua jokoan izango da, bihar eta igandean. Infantil eta kadeteen txanda izango da biharkoan. Partidak 18:00etan hasiko dira. Infantil mailan, Alkiza I-Andoain eta Aduna-Alkiza II izango dira norgehiagokak. Kadete mailan Añorga-Ordizia, Azpeitia-Amezketeta eta Alkiza-Alegia. Igandean, benjaminak eta alebinak ariko dira 10:30etik aurrera. Benjaminetan Amezketeta-Añorga izango da partida eta alebinetan Ordizia-Zizurkil eta Amezketeta-Villabona.

Aurreko kanporaketan, benjamin mailan, emaitzak hauek izan ziren: Aduna 5-Andoain 16; Bidegoian 1-Alegia 16; eta Azpeitia 16-Villabona 14. Alebinetan: Aduna 3-Andoain 16 eta Alkiza II 2-Villabona 16. Infantiletan: Andoain 18-Azkoitia 16; Añorga 16-Usurbil 18; eta Azpeitia 11-Hernani 18. Azkenik, kadeteetan, Alegia 22-Bidegoian 16.

# Tranpazulok ekarriko du berriro festa giroa

**Asteasu** » Santamaña jaiak bihartik igandera arte izango dira; ohiko ekitaldiek beteko dute egun horien egitaraua.

**ERREDAKZIOA**

Kros Igoeraren eta Euskal Herriko Segala Ligaren ondoren, Santamaña jaien egun nagusiak izango dira bihartik igandera arte. Tranpazulo ere izango da aurten festen hasiera iragarriko duena. Hori bihar goizean izango da eta hiru egunez, Santamañako baseliza festa giroak hartuko du.

Ohiko egitaraua izango da. Ez dira faltako bailarakoen arteko herri kirolak, Mañukorta et Zabala



Laja eta Landakanda berriro izango dira santamañak alaitzen. I. GARCIA

bertsolariak, Kupela taldearen emanaldiak, goizaldeko txokolatadak, mus eta toka txapelketa, haur jolasak, herri afaria, txirridulari afizionatuentzako Andaza-

rrateko Igoera eta zaldi lasterketa, besteak beste. Meza nagusiak ere izango dira baselizan eta Laja eta Landakanda trikitilariak ez dute hutsegingo.

**» EGITARAUA**

**Uztailak 18, bihar**

- **10:15.** Festen hasiera. Tranpazulo iguera eta txupinazoa.
- **11:15.** Meza nagusia. Ondoren hamaiketako.
- **13:00.** Herri kirolak bailarakoen artean. Ondoren Mañukorta eta Zeberio bertsolariak eta Kupela taldea.
- **17:30.** Kalejira. Gauean Kupela taldearen emanaldia. Goizaldera txokolatada.

**Uztailak 19, etzi**

- **16:00.** Santamañako XIV. Mus Txapelketa.
- **17:00.** Haur jolasak.
- **18:30.** VIII. Nazioarteko Toka Txapelketa.

- **21:00.** Herria afaria. Gauean Laja eta Narbaiza trikitilariak. Goizaldera txokolatada.

**Uztailak 20, igandea**

- **09:30.** Andazarrateko XXIV. Igoera. Federatugabeko txirridularientzat.
- **11:15.** Meza nagusia. Ondoren herri kirolak, Otaño eta Lasa aizkolariak eta Telleria eta Lertxundi harri-jasotzaileekin. Bertan izango dira Irazu eta Telleria bertsolariak eta Laja eta Landakanda trikitilariak.
- **17:30.** VIII. Zaldi Lasterketa. Gauean: Laja eta Landakanda. Gauerdian Tranpazuloren jeitsiera.

txokoa **h**

**2 pertsonentzako  
piragua eskolean ikastaroa**

zozketan, deitu eta eskuratu

**Txaraman abuztuaren 18-23ko astean goizez**



**KAXKARDI**  
KIROL ERREKREATIBO ELKARTEA  
kaxkardi@hotmail.com

# Karmen eguna merezi bezala ospatu dute festetan, ardatza dantza izanik

**Alegia** » Herriko dantzari gaztetxoek saioa goizean eta arratsaldean, konpartsa herriko koloretsua izan zen herriko kaleetan zehar.



Herriko dantzari gaztetxoak eguerdian aritu ziren herritar askoren aurrean. N. URBIZU

## NEREA URBIZU

Atzo izan zen Karmen Eguna eta Alegian nabaritu zen. Diankan izan ziren goizean zehar eta ondoren, herriko plazan herriko dantzari txikiak saio bikaina eskaini zuten, HITZako webgunean ikus daitekeen moduan. Maila ezberdinetan banatuta eta dantza mota desberdinak eskainiz: Oskorraren kantak, txistuarekin lagundutako dantza kanta herrikoiak...

Bitarte horretan txaranga ere hasi zen herrian zehar jotzen, baina egia esan, jende gehiena, plazan bildu zen. Arratsaldeko egitarauan lehen ekitaldia frontoiko Zazpie pasa pilota txapelketa izan zen. Bertan banakako eta binakako finalak jokatu zituzten eta aurtengo irabazleak hauek izan dira: banakakoan Aritz Artola eta binakakoan, iazko irabazleak, Iker Iriarte eta Iker Zubeldia.

## Lantz Alegiako plazan

Aurtengo jaietako berrikuntzen artean, konpartsa herrikoia izan da. Plazan bildu ziren 25 bat lagun eta Lantzeko inauterietan antzekotasunak ikusi ahal izan ziren txarangarekin batera. Gauean berri, saio berezia egin zuten plazan, dantza batzuk espreski eta bereziki jaietan dantzatzeko eta guzti.

Gaur haur parkea eta apar festa izango da goizean zehar Larraitz auzoan eta eskolako patioan. Arratsaldean ere haur jaialdia izango da merienda, joku eta guzti. Ondoren, Loatzo musika eskolako kalejira izango da.

Gauean, bertsolari jaialdi paregabea dago zinean: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia eta Aitzol Barandiaran, Iker Iriarte alegiarra gai-jartzaile izanik. Gaua ezin hobe bukatzeko edo hasteko, gauerdian Tapia eta Leturia izango dira plazan, jendea dantzan jartzeko prest.

## Bihar jubilatuen eguna

Bihar jubilatuen eguna dela esan daiteke, ingurura mendi martxa eginez, eta baita patata-tortilla lehiaketa ere. Zazpi patata-tortilla izango direla iragarri dute, binaka edo banaka antolatuta daudela. Udalak, ahal duenak behintzat, etxetik sukaldatzeko su txikia ekartzeko eskatu du, juxtu xamar ibiliko baitira. Gauean, izena eman duen herritarrentzat txekor-jatea izango da plazan.

## Gaur Bibalabirjen bandera

Atzo iluntzean Alegiako Gazte Asanbladak txupinazioa bota zuen Bulebarretik. Festa alternatiboen egitarauaren baitan gaur Bibalabirjen bandera izango da, hau da: Orian ariko dira ontziak: flotatzen duen edozein itxurako ontziak aterako dira eta lasterketa moduan ariko dira. Alegiako zubi bateatik beste zubira izango da lasterketa hau, ikusteko bitxia beraz.

Iluntzean, berri, zahagiardoa eta ondoren herriko DJak izango dira gaur. Bihar, herri bazkaria izango da San Juan kalean zehar eta iluntzean Mulanborekin poteoa izango dute, zahagiardoaren aurretik.

Festa batzordeak gogoratu du hilaren 21era bitarte autobus geldiune bakarra izango dela herrian, Larraitz auzokoa, alegia.



Konpartsa herrikoia kalejiraren une batean. I. GARCIA

## » GAURKO EGITARAUAK

### Egitarau ofiziala

- **09:00.** Herriko txistularien eta trikitilarien diana.
- **10:00-14:00.** Haur parkea Larraitz auzoko plazan.
- **13:00.** Apar Festa eskolako patioan.
- **17:00.** Haur jaialdia herriko plazan. Merienda eta jokuak.
- **19:00.** Umeen Santos Torneoko futbol txapelketa finala.
- **19:00.** Loatzo musika eskolako ikasleen kalejira.

- **22:30.** Bertsolariak zinean: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia eta Aitzol Barandiaran. Gai-jartzaileak: Iker Iriarte.
- **00:00.** Tapia eta Leturia taldearekin dantzaldia.

### Egitarau alternatiboa

- **Arratsaldean.** III. Bibalabirjen bandera.
- **Iluntzean.** Zahagiardoa.
- **Gauean.** Herriko DJak.

## Udalak 2007ko urtekariaren aurkezpen ekitaldia egingo du bihar

**Altzo** » Herritar guztiak daude gonbidatuta ekitaldi honetara. Ondoren, Udalak luntxa antolatuta du Elordi elkartearen.

## ERREDAKZIOA

Bihar, Altzoko multimedia gelan herriari buruzko urtekaria aurkeztuko dute. 19:30ean izango da ekitaldi hau eta herritarrentzat irekia da, are gehiago, Udalak herritarrek gonbidatu nahi izan ditu, «nahi duen guztiak joateko».

Aurkezpenean Altzoko 2007ko urtekaria ezagutzera emango dute. Urtero ateratzen dute urtekari erabilgarria herrian. Etxeetara bana bidaltzen dute. Aurkezpenaren ondoren, luntxa antolatuta du Udalak Elordi elkartearen.

## Laburrak

### Bai Euskal Herriari herri ekimenaren agerraldia

**VILLABONA** » Gaur, Bai Euskal Herriari herri ekimenak Geurea Ikurriña lelopean agerraldia egingo du Villabonako Berdura plazan 20:00etan. Herritarrei deialdia egin diete antolatzaleek, gonbidapena jaso dutenei eta batez ere jaso ez duten eragileei.

### Udalak administrari laguntzaile bat behar du

**IRURA** » Irurako Udalak, bulego orokorretako lan-metaketa dela eta, administrari laguntzaile bat behar du jardunaldi erdiz aritzeko, beharrek irauten duten bitartean. Langile honen betebeharrak izango dira: udal kontabilitatea eguneratzen laguntzea, telefono bidezko arreta, erregistroko sarrera-irteerak eta orohar, arduradun jerarkiako eskatzen dizkion egiteko guztiak betetzea. Izena etzi baino lehen udaleko bulegoetan eman behar da NANaren fotokopia eta kurrikuluma aurkeztuz.



# ALEGIAKO UDALA

GUREAN EZ DA BETI JAI  
BAINA BADIRA MILA MOTIBO  
KANTATZEKO, DANTZATZEKO ALAI,  
AGUR BAT ETA OROITZAPENEAN BESARKADA  
GUREKIN EZ DAUDENAI

**ONDO PASA FESTAK!!!**

Plaza Nagusia z/g • Tel.: 943 65 30 16 • [www.alegia.net](http://www.alegia.net)

## Laburrak

### Gaur jaien inguruko ezker abertzalearen batzarra

**IBARRA** ● Ezker abertzaleak jaien inguruko batzarra egingo du gaur 20:00etan Subegin. Jaien antolaketa buruzko argibideak eskaini dituzte bertan eta herritarrei bertara agertzeko deialdia luzatu diete.

### Koadrilen bazkarirako txartelak salgai gaur

**IBARRA** ● Abuztuaren 26an koadrilen bazkaria egingo da Ibarrrako Jaietan. Balantxaka koadrilak antolatuko ditu aurten eta bertako kideek azaldu dutenez, gaur txartelak salgai egongo dira Sendi Ekin-tzan 19:30etik 21:00ak arte. Aurtengo salneurria 22 eurokoa izango da. Balantxakako kideek azaldu dutenez, ezinbestekoa izango da txartelak hilabete honetan erostea. «Horretarako hiru egun jarri ditugu. Gaurkoa, uztailaren 23koa eta 29koa. Hiru egun hauetan txartelak erosteko ordu-egia berdina izango da».

### Gaur 19:30ean elkarretaratzea

**IBARRA** ● Gaur Kultur Etxearen inguruan, goiko errepidearen alboan, elkarretaratzea egingo dute 19:30ean. Elkarretaratzearen arrazoia eta leloa, *Alarma gorria espe-txeetan* izango da. Herritarrei bertara agertzeko deia egin zaie.

### Bidaian parte hartzeko azken eguna gaur

**BERASTEGI** ● Gaur amaitzen da Berastegiko Gaztañondo Jubilatuko Elkarrekin antolatutako bidaian parte hartzeko eta izena emateko aukera eta eguna. Izena eman nahi dutenek Gaztañondo Elkartera joan beharko dute gaur eta bertan bidaiarako zerrendan euren izena jarri. Bidaia berriz uztailearen 24ean, ostegunean, egingo dute Sos del Rey Catolico (Aragoa) herriera. Bertan bazkaria ere egingo dute, arratsaldean berriz Zangoza (Nafarroa) ezagutuko dute. Parte hartu nahi duenak 30 euro ordaindu beharko ditu.

## 'Atari Bizi' lehiaketaren egun erabakiorra etzi

**Amasa-Villabona** ● Epaimahaiko lau kideek herriko atari eta balkoiak aztertuko dituzte etzi irabazleak erabakitzeko.

harririk, izan ere epaimahaikak balkoi eta atari guztiak aztertu eta baloratuko baititu etzi.

### Epaimahai kideak

Epaimahaia lau kidek osatuko dute: Joxe Ramon Mendiluzek, Lorazaintza enpresako lorazainak; Mikel Igarataundik, Kimu Bat enpresako lorazainak; Arkaitz Rezolak, Itsasmendikoi-Fraisoroko lorazaintzako irakasleak eta Garbiñe Olaberriak, udaletxeko teknikariak.

Etzi, epaimahaia herriko etxetako balkoi eta atariak aztertzen ibiliko da, saridunak nor izango diren erabakitzeko lan zailari aurre egingez. Sarietako dagokienez, lehenengoak nekazal etxe batean gau bat pasatzeko aukera irabaziko du, 100 euroko bale batekin batera. 2.ak 100 euroko balea jasoko du eta 3.ak 85 eurokoa.

### ERREDAKZIOA

Amasa-Villabonako Udalak antolatutako *Atari Bizi* lehiaketaren irabazleak, uztailearen 19an, etzi, erabakiko dira, nahiz eta uztailearen 25era arte ez dugun jakingo zein diren epaimahaiaren ustez, eta bertan kokatuta dauden landareei dagokienez behintzat, interesgarrienak diren Amasa-Villabonako atari eta balkoiak.

Sari banaketa uztailearen 25ean 19:00etan izango da, Villabonako Errebote plazan.

Lehiaketa honetan parte hartzeko ez dago inon izena eman be-

# Uzturpe Udal Haur Eskola Euskal Autonomia Erkidegoko gorengo mailan

**Ibarra** ● Hazitegi ikerketaren emaitzak plazaratu ditu izen bereko taldeak, 2006-07 ikasturtearen inguruan.

### ERREDAKZIOA

Ibarrrako Uzturpe Udal Haur Eskolak 2006-2007 ikasturtean, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak abian jarri zuen Hazitegi deitutako ikerketa proiektuan parte hartu zuen. Ekainean azaldu berri dituzte emaitzak.

Uzturpe Udal Haur Eskolako datuak Euskal Herriko tokirik gorenean kokatu dira, «lortutako emaitzak laginek gainontzeko eskolena baino aberatsagoak dira, izan ere, emaitza horiek batezbestekotik gora kokatzen baitira kasu gehienetan. Are gehiago, azpimarratzekoak dira ikasleen garapenari, eskolaren kalitateari, gelako giroari eta hezitzailearen esku hartzeari dagozkion emaitza altuak».

### Ikerketaren nondik norakoak

Mondragon Unibertsitateko Hazitegi taldeko kideen helburua «haur txikien garapen osasuntsua

bultzatuko duen Haur Eskola eredu» garatzea da.

2006-2007 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoan egin zuten ikerketaren helburua berriz, laginek 0-3ko gelen errealitatea ezagutzera eta aldagai horien arteko erlazioak identifikatzera izan zen. Alde batetik «Haur Eskolen kalitate maila ezagutuzten da, gelen giroa ezagutu eta irakaslearen esku-hartzea ezagutuaz». Bestalde umeen garapena aztertzen dute ikerketaren baitan, hiru faktore kontutan hartuta: «Haurren inplikazio maila, ongizate maila eta haurren arteko hartu-emanen kalitatea».

Euskal Autonomia Erkidegoko 0-3 adin tarteko 62 gelek eta beste horrenbeste hezitzaile eta 895 haurrek osatu zuten lagina. Emaitzak Uzturpe Udal Haur Eskola Euskal Herriko lehen postuan kokatu dute.

### Emaitzaren honen zergatiak

Hazitegi taldeko kidea den Iñaki Larrearen ustez, besteak beste ondokoak izan dira emaitza positibo horien arrazoiak: «Antolaketa benetan egokia erakustea. Koordinazio lan egokiak ahalbideratzen duen denborari etekina ateratzea.

Aurrekoaren ondorio, benetan aberatsak dira haurren garapena bultzatzeko haurrei planteatutako jarduerak, esperimentazioarako aukerak eta jolasak.

Antolaketa egokiaren beste ondorioztat har daiteke ziklo honetan behar-beharrezkoak diren irakasle-ikasle ratioak ohikoak baino egokiagoak izatea.

Antolaketaekin erabat loturik hau ere, azpimarratzeko da Uzturpe Udal Haur Eskolan 0-3 zikloaren izaera indartsua izatea; 0-3koaren ikuspegi bateratua funtsezkoa baita haurren garapenari begira.

Aipatutakoaz gain, nabarmendu behar da irakasleen egonkortasuna. Ikerketa askotan jakinarazi den bezala, benetan garrantzitsua da umeentzat erreferentziatzeko pertsona denbora luze izatea».

### Uzturpe Ikastolatik zorianak

Uzturpe Ikastolako arduradunek Ibarrrako Uzturpe Udal Haur Eskolan lanean aritu diren kideak zoriandu nahi izan dituzte: «Zorionak Ixiar, Agurtzane, Ainhoa, Beronika, Ainhoa, Enara, Miren, Idoia, Maitane, Miren, Naiara, Izaskun, Ainhoa eta Arantxa Uzturpe Ikastolatik».

## Aquaparken eskualdeko haurrak

**UDALEKUAK** ● Urtero bezala Uli Mankomunitateak, hau da, Leaburu-Txarama, Orexa, Gaztelu eta Belauntzak, haurrentzat udaleku irekiak antolatuko ditu. Eguneroko jolas eta eskulaneekin batera irteerak egiten dituzte astero. Irudian iragan asteazkenean burutu zuten txangoa, Hernanin dagoen Aquapark-era. h.



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

**hitza**<sub>n</sub>,  
eskualeko egunkarian

harpidetza zaitez!  
nola?

902 82 02 01  
edo  
hitza@harpidetza.info



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Leitzak, Aresok eta Goizuetak guardiako mediku bakarra dute orain

**Gizartea** » Irtenbide bila dabilta alkateak, baita Aranokoa ere, lau herrirentzat mediku bakarra gutxi baita.

N. GARZIA

Leitza, Areso, Arano eta Goizueta guardiako mediku bakarrarekin dabilta eta arazo honen aurrean alkateak irtenbide baten bila dabilta, Osasunbidearekin bilera bat egin nahian.

«Mediku falta dagoela esan digute. Oso ilun jarri digute, 400 medikutatik ez omen zuen inork etorri nahi, baina guk atzeraka ezin dugu joan», dio Mikel Baraibar Aresoko alkateak. Xabier Zabalo Leitzako alkatearen ustez, «ikusten zen arazo hau heldu zela, eta hori da berriak hartu duten erabakia, gurekin kontaktu gabe. Leitza eta Goizueta arteko errepidea txarra da, ez dakit hortaz haiek ohar-tzen diren, distantzia txikia izan arren eta gainera ez dago koberturarik».

## Telefonoak Larrialdiak. ((112))

### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzarar autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udalaitzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320



## Musikak eztanda egin arte

**LEITZA** » Udako antolatutako tailerrak aurrera doaz eta aste honetan musika tailerraren txanda da. 31 umek izena eman dute bertan parte hartzeko eta 4 begiralerekin lanean ari dira. Gainera, atzo, Oskar Estangaren bisita jaso zuten eta perkusioa jotzen aritu ziren denak batera. Begiraleez

gain, Julen Gilen laguntza ere izanen dute aste osoan zehar. «Egun hauetan musikarekin eta perkusioarekin zerikusia duten jokoak egiten aritu gara, erritmoa lantzeko. Azkeneko egunean batukada bat egitea da gure asmoa, ea zer moduz ateratzen den», dio Orkatz Erbiti begiraleak. N. GARZIA

## La dena prest etzi gaztetxearen hirugarren urteurrena ospatzeko

**Leitza** » Ekitaldiak antolatuta dituzte, eta orain gaztetxea margotzen ari dira, larunbaterako «txukun izateko».

NAIARA GARZIA

Larunbatean Atekabeltz gaztetxearen hirugarren urteurrena ospatuko dute egun osoan zehar. Festa eguna iristear dagoela bistan da, egun hauetan gaztetxea margotzen ari baitira. Bertako Irati Iparragirrek azaldu duenez, «itxura pixka bat eman nahi diogu».

Urtero bezala, aurten ere bizikleta martxa egingen dute, eta festa 10:00etan hasiko da, herrian zehar egingen duten dianarekin eta bizikleta martxa batera egingen dituzte. «Batera egingen ditugu, aurretik kotxe bat joan eta musika jartzen eta atzetik bizikletarekin joan gara».

11:00etan, AHTri buruzko hitzaldi bat eskainiko dute, aldaketak egin baitituzte eta argazki proiektzioa ordu horretan egin ordez, arratsaldean egingen dute.

14:30ean herri bazkaria egingen dute eta sarrerak Torrean jarri dituzte salgai. Bazkalondoren olinpiadak egingen dituzte. «Espero dugu bazkalzera datorren jende guztiak parte hartzea eta denen artean taldeak egingen eta joko farre-garriak egingen ditugu. Adibidez,



Gaztetxea margotzen ari dira larunbaterako. N. GARZIA

lurrean plastiko bat eta gainean ura eta xaboa bota eta gero bandaja batekin hor gainean ibiltzea. Horrelako joko pika bat egingen ditugu». Printzipioz jokoak plazan egingen dituzte, eguraldiak laguntzen badu.

19:30ean kale animazio poteoa egingen dute. «Elektrotuna taldearekin ibiliko gara herrian zehar, musika jotzen duen talde bat da, oinez doazen bitarten».

Poteoa amaitu ondoren gaztetxera itzuliko dira arratsaldekoa egingera eta kontzertua hasi baino lehen argazki eta bideo proiektzioa egingen dute. «Arratsaldekoa amai-

tu ondoren egingen dugu, gaztetxean 3 urte hauetan egin diren ekitaldi eta festa ezberdinen argazkiak eta bideoak botako ditugu», dio Iparragirrek. Festak gauetan jarraituko du, 00:00etan Vendetta taldeak eskainiko duen kontzertu batetik.

### Hiru urte martxan

Urte urte autogestioaz sortzen erakitzen da hirugarren urteurrena ospatzeko aukeratu duten lema. «Gaztetxea ongi doa, jende gehixeago animatzea nahiko genuke, ea bizi gehiago ematen diogun denen artean, eta ea horrela jarraitzen dugun denbora askoz», azaltzen du Arantxa Iparragirrek.

Urtean zehar gauzak antolatzen jarraitzeko asmoa ere azaldu du. «Ekitaldi ezberdinak egingen ditugu, hitzaldiak, festak...».

### » EGITARAUA

■ **10:00etan.** Diana eta bizikleta

martxa.

■ **11:00etan.** AHTri buruzko hitz-

zaldia.

■ **14:30ean.** Herri bazkaria eta on-

doren gazte olinpiadak.

■ **19:30ean.** Kale animazio poteoa

Elektrotuna taldearekin.

■ **Ondoren.** Arratsaldekoa Ateka-

beltzen eta proiektzioak.

■ **00:00etan.** Kontzertua, Vende-

ttal taldearen eskutik.

Beti alai  
jateko



**Garaian  
garaiko janariak  
Arraikiatan berezia**

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



20°  
15°

GOIZA EGUZKIA  
ARRATS. EGUZKIA  
BEROENA 20°  
HOTZENA 15°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Alegia.** Karmen jaiak: 09:00etan diana; 10:00-14:00etan haur parkea; 13:00etan Apar Festa; 17:00etan haur jaialdia; 19:00etan futbito finala; 19:00etan ikasle-en kalejira; 22:30etan bertsolariak zinean; 24:00etan Tapia eta Leturia.  
■ **Villabona.** 12. Garagardo Azoka Txerminen, Irrintzi kirol elkarteak antolatuta.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Gazteak matxismoaren aurka. Batzarra Kultur Etxean 17:30ean.  
■ **Tolosa.** Txalaparta tailerra 17:00etan Topagunean, Kultur Etxean.  
■ **Anoeta.** 10:00etatik 13:00etara herri kirolak izango dira plazan. Ez da beharrezkoa aurrez izena ematea.

### Ikastaroak

■ **Tolosa.** Sanblasipiko Gazte Asanblada euskal dantza (fandango eta arin arina) ikastaroa antolatuta du udako asteazkenetarako, 11:30etik 13:00etara, Otsabi gazte lokalean, Udaberri dantzari taldearen laguntzarekin.

### Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Pirinioetara mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak, hilaren 25etik 27ra, Palas (2.974 m) eta Lurien (2.826 m) mendiak igoz. Izen-ematea, elkar-teen.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

# Pagotsaren bila



%30etik %50erako deskontuak iragartzen dituzte erakuslehoetan...

### Tolosaldea-Leitzailea »

Saltoki gehienek dagoeneko %50eko beharpena iragartzen duen kartelak dituzte.

### ERREDAKZIOA

Krisia. Horixe da azkenaldian komunikabideek gehien erabiltzen duten hitza. Ez dakigu eskualdeko biztanleek euren poltsikoetan nabaritzen hasi ote duten krisi delako hori, baina saltokietako langileak, oro har, ez daude oso pozik denboraldi honek eman duenarekin, salmentei dagokienez.

Jendeak nekez erosten omen du eta horrexegatik, merkealdia ohi bezala pasa den uztailean Lean hasi bazen ere, agian ikusi ditugu saltokietako erakuslehoetan inoiz baino lehenago %50eko beharpena iragartzen dituzten kartelak. Denda gehienetan prezio erdian daude produktuek.

Oraindik saltzeko asko geratzen omen da dendetan eta aurreko urteetan ez bezalaxe, neurri ezberdinak daude oraindik aukeran. Eguraldia ona ere azkenean heldu dela dirudi, beraz, orain arte egin ez du tenentzat garai ona da pagotsaren bila eskualdeko saltokietara irteerako.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Garazi (Amezketza).** Gaur 2 urte. Zorionak etxeko eta bereziki Aratz eta osaba Josebaren partetik.



### Urte askoan!

**Lorea Azkue Arsuaga (Irura).** Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

**agurrak**

urtebetetzeak - urrezko ezteiak  
ezkontzak - jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5. behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

Tolosaldeko komunikabide batek

**Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak edo ikasleak behar dituzte lan poltsa osatzeko.**

Interesatuak deitu **661 67 88 17** telefono zenbakira

**hitza** info

elastiko berriak salgai  
haur, gazte eta helduentzat

Harpidedunentzat  
**%25 merkeago**

Tolosako HITZAren bulegoan eskuragarri.

elastikoarekin  
**poltsa opari!**